

**BI MILA ETA HAMAIAKAKO URTARRILAREN 9AN ETXARRI  
ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAKO  
AKTA.**

2012ko urtarrilaren 9an, arratsaldeko 20:00etan, Etxarri Aranazko Udalak ezohiko Osoko Bilkura deitu, eta lehenengo deian osatu da, arauzko moduan deitu ondotik. **JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA** alkatea mahaiburu izan du eta zinegotzi hauek bertaratu dira:

**Bertaratuak**

**ENEKA MAIZ ULAYAR and.  
AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.  
EDURNE IGOA LIZARRAGA and.  
IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.  
ARACELI ERDOZIA ANSO and.  
MARIA ARANTZAZU ARTIEDA IGOA and.  
MAIDER GOÑI ERRAZKIN and  
MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO jn.**

**Bertaratu ez direnak**

**FRANCISCO MANUEL CAMPOS ARAÑA Jn.**

**Idazkaria**

**Silvia Gonzalo Etxarri**

Hasi baino lehen, alkateak ezohiko bilera egitearen premia justifikatu du: urtarrilaren lehenengo astean zinegotzi gehienak ezin izan ziren etorri eta abenduko osoko bilkuran hurrengo bilkura gaur egitea erabaki zen. Bertaraturakoek gaur egiteko premia zegoela onartu dute.

**1.- AURREKO AKTAK.**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondotik, 2011ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuraren akta aztertu eta onartu da.

**2.- 2012KO EGUTEGIA**

Alkateak hiru ordezkari sindikalek 2011/12/22an aurkeztutako proposamena azaldu du. Idazkariari entzun ondoren, Osoko Bilkurak proposamena onartu du. Nolanahi ere, abenduaren 24a eta 31a egun baldiodunak izango dira eta, ondorioz, lan-eguntzat hartu beharko dira.

Etxarri Aranazko Osoko Bilkurak erabakia hartu du, honako xedapen hauei jarraikiz: abenduaren 27ko 624/1999 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetako enplegatuentzat urteko lanaldia ezartzen duena, hain zuzen ere, Nafarroako Administrazio

Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren aplikazio eremuan sartzen direnentzat; 699/2011 EBAZPENA, ekainaren 24koa, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren zuzendari nagusiak emana kontuan harturik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen 2012ko lan egutegia onesten duena. Hauxe da erabakia:

1. 2012ko jaiegunen lan egutegi hau onestea, Etxarri Aranazko udal bulegoetarako: Urtarrilaren 6a: Jaunaren Agerkundera.

Martxoaren 19a: San José.

Apirilaren 5a: Ostegun Santua.

Apirilaren 6a: Ostiral Santua.

Apirilaren 9a: Pazko astelehena.

Apirilaren 30ean: Zubia

Maiatzaren 1a: Langileen eguna.

Ekainaren 13a: San Kiriko.

Ekainaren 16a: San Adrian.

Abuztuaren 6,7 eta 8: Herriko Jaiak.

Abuztuaren 15a: Abuztuko Andre Maria.

Urriaren 12a: Espainiako Festa Nazionala.

Azaroaren 1a: Domu Santu.

Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.

Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.

Abenduaren 8a: Ama Birjina Sortzez Garbia.

Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Orobat, baliogabeak izanen dira, 2012. urtean epeak kontatzeari dagokionez, igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak.

2.-Etxarri Aranazko Udalaren bulegoetan, eguneko lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, astelehenetik ostiralera, 37 ordu astean, 217 egun, eta zerbitzuen beharren arabera osatu beharko da urteko lanaldiaren lanordu-kopurua, 1.592 ordukua baita; eguneko lanorduak honela banatuko dira: 8:00etatik 15:00etara guztiendako derrigorrezkoa, eta gainerako 20 minutuak langile bakoitzak nola bete erabakita, malgutasunez, 7:40etik 8:00etara bitarte eta 15:00etatik 15:20era bitarte.

3.-Erregistro orokorra 10:00etatik 14:00etara egonen da irekita, jendea hartzeko.

4.-Zerbitzu anitzetako langileen lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, denentzat, 7:30etik 14:50era bitartean. Garbitzaileen ordutegia, 7:00etatik 14:20era bitartean.

*El Sr. Alcalde informa de la propuesta presentada por los tres delegados sindicales. Oída la Secretaria, el Pleno acuerda aprobarla, sin embargo los días 24 y 31 de diciembre serán días hábiles y de trabajo.*

*De conformidad con el Decreto Foral 624/1999, de 27 de diciembre, por el que se establece el cómputo anual de la jornada de trabajo para los empleados al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra, sometidos al ámbito de aplicación del Texto Refundido del Estatuto del Personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra; teniendo en cuenta la RESOLUCIÓN 699/2011, de 24 de junio, de la Directora General de Trabajo y Prevención de Riesgos, por la que se aprueba el calendario laboral del año 2012 para el personal al servicio de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y sus organismos autónomos; visto el DECRETO FORAL 247/2011, de 28 de diciembre, por el que se declaran los días inhábiles en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra a efectos de cómputo de plazos para el año 2012, el Pleno del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz ha acordado:*

*1.-Aprobar el calendario laboral de días festivos durante el año 2012, en las Oficinas del Ayuntamiento de Etxarri Aranatz, que será el siguiente:*

*6 de enero: Festividad de la Epifanía del Señor.*

*19 de marzo: San José.*

*5 de abril: Jueves Santo.*

6 de abril: Viernes Santo.  
9 de abril: Lunes de Pascua.  
30 de abril: Puente  
1 de mayo: Fiesta del Trabajo.  
6, 7 y 8 de agosto: Fiestas Patronales  
15 de agosto: Asunción de la Virgen.  
12 de octubre: Fiesta Nacional de España.  
1 de noviembre: Festividad de Todos los Santos.  
3 de diciembre: San Francisco Javier.  
6 de diciembre: Día de la Constitución.  
8 de diciembre: Festividad de la Inmaculada.  
25 de diciembre: Navidad.

Asimismo, se declaran inhábiles a efectos del cómputo de plazos en el año 2011, todos los domingos y los días declarados festivos para las oficinas municipales.

2.-La jornada de trabajo diaria en las Oficinas del Ayuntamiento de Etxarri Aranzatz será de 7 horas y 18 minutos de lunes a viernes, 37 horas semanales, 217 jornadas/días, debiendo en función de las necesidades de los servicios completar hasta el cómputo anual de la jornada, que está establecida en 1.592 horas, siendo de 8 a 15 horas, con carácter general y obligatorio, y quedando los 20 minutos restantes para su cumplimiento a elección del empleado y con carácter flexible entre las 7:40 a 8 horas y las 15 a 15:20 horas.

3.-El horario de atención al público y de apertura del Registro General queda establecido de 10:00 a 14:00 horas.

4.-Los servicios múltiples realizarán su jornada de trabajo de 7 horas y 20 minutos, entre las 7:30 y las 14:50 con carácter general. El servicio de limpieza realizará su jornada de trabajo entre las 7:00 y las 14:20.

### **3.- 2010EKO KONTUAK**

Udal honetako Kontu Batzordeak 2010eko ekitaldiko kontuen aldeko txostena egin zuen. Espedientea jendaurrean egon den bitartean inork alegaziorik, oharrik edo kexarik aurkeztu ez duenez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Etxarri Aranzatzko Udaltzatza aho batez erabaki du:

Udalaren eta Musika Eskolaren 2010eko ekitaldiko kontuak behin betiko onestea eta iragarkia NAOn argitaratzea.

*Informadas favorablemente las Cuentas del Ejercicio 2010 por la Comisión de Cuentas de este Ayuntamiento. Dado que durante la exposición pública del expediente no se han presentados alegaciones, observaciones o reparos al expediente; de conformidad con lo dispuesto en el artículo 305 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra; el Pleno del Ayuntamiento de Etxarri Aranzatz, por unanimidad acuerda:*

*Aprobar definitivamente las cuentas del Ayuntamiento y la Escuela de Música correspondiente al ejercicio 2010 y proceder a su publicación en el BON.*

### **4.-PARTE HARTZEARI BURUZKO MANIFESTUA/INFORMAZIOA**

Alkateak parte-hartzea sustatzeko adierazpena azaldu eta udaltzatza manifestua onetsi du.

#### **ETXARRIARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO ADIERAZPENA**

Parte-hartzea euskal gizartearen berezko lan sistema izan da antzinatek: auzolanak, batzarrak, senitartekoen eta auzokideen arteko lankidetzak, etxeak eraikitzekeo lan komunitarioa, zaharrak eta haurrak zaintzeko familia sareak... Lan egiteko, inguruarekin harremanak izateko, eta gizarteak eraikitzekeo jokamolde jakin bat da parte-hartzea.

Gainera, auzolanak berebizikoa garrantzia hartzen du, beste modu batean ase ezingo liratekeen beharrak asetzeko tresna baita. Etxarrin ere elkartasun tradizioa zabala izan da, eta oinarrizko azpiegitura batzuk auzolanean egin izan dira: igerilekuak, plaza, basoko lanak.... Gure herria ez zatekeen izanen gaur egun dena auzolanari eta parte-hartzeari esker izan ez balitz.

Baina gure herrian parte-hartzea ez da izan azpiegitura fisikoak eraikitzeko sistema bakarrik. Ekimen herrikoi ugari ere konpromiso kolektiboari esker eraiki dira: euskal irakaskuntza, kultura, euskara bera, herri hedabideak, gazte mugimendua, herri eta auzoetako ospakizunak, elkarteak, aldarrikapen kolektiboak... Horiek guztiak gaur egun bizirik daude, auzolan eta parte-hartze egitura erraldoiei esker.

Lan komunitarioak laguntzen digu ohartzen zeinen aberatsa den herri garela sentitzea, talde-lanean aritzea, gure beharrak guk gerok asetzea eta gainerako kideekin ditugun harremanen balioaz ohartzea. Lan sistema hau berezia da herritarren arteko berdintasunean oinarritzen delako, elkartasunaren balioa indartzen duelako, autoeratzeko aukera ematen duelako, eta oro har, gaurko eguneko gizarte ereduari indartu beharko liratekeen balioetan sakontzen duelako.

#### ADIERAZTEN DUGU:

✓ Parte-hartzea sustatzeak herri moduan indartzen gaituela, eta gure herritar identitatea indartzen duela.

✓ Herritarren parte-hartzerik gabe ez dagoela benetako demokraziarik. Herritarrek hitza eta protagonismoa izan behar dutela erakundeetan. Gaur egungo sistema demokratikoa gaingaitu eta parte-hartze tresnak eraikitzeko ahalegina egin beharra dagoela, gizartearen autoeraketa benetako demokrazia eraikitzeko giltza baita.

✓ Parte-hartze sistemak bi alderdi dituela: eskubideak eta eginkizunak. Batetik, herritarren eskubidea dela informazioa jasotzea, eta udal prozesuetan eta erabakietan parte hartzea. Baina bestetik, herritarren eginkizuna ere badela lan komunioetan laguntzea. Herritarren eta erakundeen hartu-emanak aldebikoa izan behar duela.

✓ Parte-hartzea oso tresna baliagarria dela oraingo eta etorkizuneko udal erronkei aurre egiteko.

#### ETXARRIKO UDALAK KONPORMISOA HARTZEN DU, HERRITARREKIN BATERA:

✓ Udalari buruzko informazioa guneak sortzeko: udal buletina, batzordeetako informazio guneak, batzar informatiboak, WEB-gunea...

✓ Udal batzordeak eratzeko: eztabaidatu, partekatu eta erabakitze esparruak izanen dira, eta baita ere, lanak banatu eta lankidetzan sustatzeko.

✓ Auzolanaren gaineko gogoeta bultzatzeko: berdintasunean oinarrituta, borondatezkoa, eta garai berriei egokitu.

✓ Udal aurrekontuak parte-hartzaileak izateko bidea jorratzeko.

✓ Udalak herriko talde, elkarte eta eragileekin egiten dituen hitzarmenetan parte-hartze konpromisoari buruzko oharra gehitzeko.

#### DEIALDIA LUZATZEN DUGU:

Etxarriko udalak deialdia luzatzen die etxarriar guztiei udal batzordeetan parte hartzeko, eta aurrerantzean sortuko diren parte-hartze ekimenekin bat egiteko.

## **5.- LOGOA ETXARRI 2012 ERABILTZEA**

*Etxarri 2012* ekimenak 2011/12/15ean Etxarri 2012 Logoa udal idazki guztietan erabiltzea eskatu du. Jakinda zinegotzi guztiak ados daudela, Tokiko Gobernu Batzordeak 2011/12/15ean oniritzia eman zion. Udalbatzak eskaera onartu du.

## **6.-GALDE ESKEAK**

**6.a)** Alkateak dio ordezkari bat izendatu behar duela aste honetan dagoen UEMAko bileran Udala ordezkari dezan (izendatuta dauden bi ordezkari ezin direlako joan). Idazkariak 6/1990 foru legearen 81.1 artikulua berri eman duten du, hala ere, bertaratutako guztiek onetsi dute gaia tratatzea

Udalbatzak erabaki du Edurne Igoa Lizarraga zinegotzia izatea Etxarri Aranazko Udalaren ordezkaria UEMAn.

**6.b)** Alkateak dio aste honetan dagoen Alkateen Mugimendua izeneko ekitaldiaren gaia ez zela zen gai-ordenean sartu (ahaztu zitzaiolako eta azken egunetan sortu eta antolatzen ari delako) Idazkariak 6/1990 foru legearen 81.1 artikulua berri eman du ten du, hala ere, bertaratutako guztiek onetsi dute gaia tratatzea.

Alkateak igandean, urtarrilak 15, egingo den Alkateen Mugimenduaren 35. urteurrenaren ospakizunaren berri eman du. Udalbatzak aho batez onartu du proposamena.

Eta aztergaietan beste gairik ez dagoenez, 20:30 presidentek Osoko Bilkura amaitutzat ematen du, akta idazkariarekin batera sinatu, eta idazkariak horren fede ematen du.